

MUGALUR

Mugaldetik lurraldera



Mugaldeko bizi eremu bat eraiki

30 urte baino gehiago du Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua jendarte zibilaren boz-eramaile dela eta **mugaz-gaindiko lankidetzaz azkarraren** nahikeria erakusten duela. 2019an, IEHGKak bere ikuspegia berritu du, "Mugaz-gaindiko lurraldea agertaraz dezagun" ekarpena eginez, zeintan erakaspak hauek aitzinatuak diren:

- **Mugaz-gaindiko eremuan** bizi baldin bagira ere, **honek ez du oraindik ezagupenik**
- Mugaz-gaindiko lankidetzaz haratago (zentzu instituzionalean harturik), mugaldeko bizi eremuan eraikitze beharra dugu, **mugaz-gaindiko lurraldea eraikitze** beharra.
- Mugaz-gaindiko jendarte zibilari leku bat eskaini behar zaio **biharko mugaz-gaindiko lurraldearen hausnarketan**: eragile sozio-ekonomiko eta herritarren **usai** eta **praktiketan** oinarritzen den gogoeta kolektibo bat.
- Mugaz-gaindikoak arlo guziaz hunkitzen ditu, ekintza publikoaren arlo guzietan konduetan hartu beharko litzatekeena eta IEHGKak "**mugaz-gaindiko herri proiektu**" **baten egitea** proposatzen du, Bidasoaren bi aldeetako eragile sozio-ekonomiko zein instituzionalak lotuz.
- Herritarrak ez dira eragile bilakarazten hitzartuz; **jokolari izan behar dute**, biharko mugaz-gaindiko lurraldearekiko gogoeta beren esku hartzeko gaitasuna emanaz.

Lan horien ondorioz, argi ateratzen da **biztanleen usaiak gogoetaren oinarrian izan behar dutela** eta politika publikoek jendarteko erronkei erantzunak ekarri behar dizkietela. Horretarako, **IEHGKak mugaz-gaindikoaren ikuspegi berri bat garatu nahi izan du MUGALUR proiektuaren bidez, 2023an abiatuko dena.**



Ikuspegi baten hautua: antropologia


IEHGKak, antropologian doktoregaia den **Elena Casiriain**-i harrera egin dio joan den 2022.10.31n. Toulouse-ko Jean Jaurès unibertsitatean baita Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) prestatzen du ikerketa hori. Hiru urteko kontratua du, Cifre (Convention Industrielle de Formation par la REcherche) hitzarmenarekin izenpetua.

Tesia horren helburua da **Euskal herriko mugaz-gaindiko usai eta praktiken** ikertzea. Bere xedea da lurraldeko mugaz-gaindiko praktiken deskribapenetik pasatuz, mugaz-gaindikoa egiteko moldeak galdezkatzea baita ber-definitzea: nolako eta zein formatako mugaz-gaindiko usaiak ote ditugu Euskal herrian? Zerk motibatzen gaitu mugaldeko eremuetan murgiltzera? Ikerketa honek ikuspegi berezi bat proposatzen du, erran nahi baitu lurralde batean muga politiko baten presentziak eragiten dituen bizipenena. Lehen pausu batean, lan hau mugarekiko ditugun diskurtsoetatik bereizi nahi da, usaietan fokalizatzeko.

Metodologia bat: landa lana

2020 eta 2022 artean, Elena Casiriain-ek landa lan bat eraman du mugaldeko herri desberdinetan, Xiberuan, Baxe-Nafarroan baita hainbat ibar nafartarretan ere: Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar, Esteribar, Baztan.

Orain arte, ehun bat solaskiderek ere eraman ditu sakoneko elkarrizketak. Horri gehitu behar zaizkio landa eremuan bizitako egoera eta solas informalak, egiazko informazio iturriak ikerlearentzat.



- Elkartek
- Mugaz-gaindiko tradizioa duten familiak (kontrabanda etabar.)
- Instituzioak
- Ikerleak
- Mugaldeko biztanleak
- Artzainak

2020 eta 2022 artean eramandako sakoneko elkarrizketak

Ezagutu beharreko mugaldea

Landa eremuan bildutako materialan baita IEHGKak eramaniko lanetan oinarriturik, Euskal herriko gaurko mugaz-gaindiko errealitatearekiko lehen hipotesiak formula ditzakegu.

Kontraesan batetaz ohartzen gira: nahiz eta mugan, kontrola sistematikorik ez gehiago egon eta 1990 hamarkadatik, europar merkatua plantan izan, mugaz-gaindiko harremanak ttipituz doazela

badirudi. Zenda? Nola esplika dezakegu? Baditazke **arrazoin estrukturalak**, mendi-ibarren hustea, artzaingoaren eta mendiaren kudeaketaren praktikaren aldaketa etabar. Horri gehitzen ahal zaie frantses eta espagnol nazioen mailako iruditegi partekatuen uniformizazioan parte hartzen duten hedabideen pizua (telebista eta sare sozialak adibidez). Horrek "mugaren" efektua azpimarratzen du: beti eta erreferentzia partekatu gehiago bada Baztango ibarra eta Madrileren artean edo Larrañe eta Pariseren artean, Ezterenzubi eta Orbaizeta edo Irun eta Hendaiaren artean baino. Azkenik, mundializazioaren baita modelo ekonomiko liberalaren momentuan, zeintan ingelesak gaina hartu duen, paradoxikoki hurbileko mugaz-gaindiko harremanak kaltetuak dira, hizkuntza amankomunen ezagutza eskasaz.

Hipotesia horietaz haratago, **nola esplikatu urruntze hori**, eta egiazki ba ote da, edo sinpleki mugaz-gaindikoa egiteko moldea formaz aldatzen ari ote da? Muga hori ikusezin bilakatua den unean, zein forma hartzen du mugaz-gaindikoak?

Lurraldeko biztanleen mugaz-gaindikopraktikak begiratzen ditugularik, laster ohartzen gira **praktika gehienak eremu pribatu, pertsonal eta intimoan egiten direla**. Muga pasatzen dugu erosketa batzuen egiteko, familiari bisita baten egiteko, lagunekin bazkaltzeko edo ekitaldi kultural batetara joateko... eta hori, bakarrik adibide batzuen emaitako. Praktika horiek ez dute mugaren pasatzea ez-ohizkotzat hartzen, baina banalizatua den errealitatea da. Zailtasunak ditugu horien neurtzeko. Ez da mugaz-gaindiko langile kopurua kondatzea

bezala adibidez, hau apala delarik Euskal Herrian beste muga batzuekin konparatuz. Ikerketa honen proposamena da praktiketan oinarritzea, ikusgarritasunik ukan gabe ere, gure lurraldea mugaz-gaindikoa egiten dutenak. **Hipotesiatzat hartzen du mugaz-gaindikoa badela Euskal herrian baina forma informaletan bilatu behar dela.**



Berez, **zinezko atxikimendu bat bada mugaz-gaindiko eremuekiko**: Euskal herriko biztanlegoaren gehiengoak atxikimendu berezi bat badu "bestaldearentzat" eta nahi luke mugaz-gaindikoa garatzen ikusi. Atxikimendu hori, iraganeko mugaz-gaindiko usaietatik heldu dela badirudi : kontrabandistek, errefusiatu politikoek, lanarentzat sasoineko migranteek, lekuko emigratio jarraikia eta anitza segurtatu dute.



Muga baten izaiteak berez bere pasatzeko kondizioak sortzen ditu, zeren **mugak, transgresioaren interesa sortzen du**. Ikerle desberdinek erakutsi dute muga politiko bat duen lurraldeak kultura berezi bat duela zeintan norma eta transgresioa etengabe elkartrukaketan diren. Ikerketa honek "mugaldeko kultura" horri interesatzea proposatzen du transgresioak, iduriz, izaiteko manerarik ez duen eta "muga" baztertuz, "mugaz-gaindikoa" bereziki begiratua den momentu batean.

Hemen, hipotesia da mugaz-gaindikoa bortxaz mugarekin doala eta **mugaz-gaindiko kultura, baldin bada, mugaldeko kulturaren bilatzekoa dela, erran nahi baitu, gaurko mugaz-gaindiko usaiak motibatzen dituzten iraganeko bizipenen ondorioz.**

Ez daitaie egokia mugaz-gaindikoaz, singularrean mintzatzea: mugaz-gaindikoaren egiteko manera desberdinak badira eta ondorioz mugaz-gaindiko errealitate eta bizipen desberdinak ere. Adibidez, ez dugu mugaz-gaindikoa manera berean bizitzen mugaldeen, konparazioaren, eta urrunagotik, Donostian bezala. Ez da mugaz-gaindiko berdina ere bortuan, artzain eta mendi gida, turismo egiturekin eta kostaldean.

Baditazke beraz mugaz-gaindikoak, mobilizatu eta lurraldeen errealitateen arabera adaptatu beharrekoak.

Praktiken ikuspegitik, egiaztapen bat egiten dugu errexki: eguneroko eta informalak diren mugaz-gaindiko praktikak, mugaz-gaindikoak dira forman eta ez beren helburuan.

Helburua ez da mugaz-gaindikoa aipatzea bainan "egitea" mugaz-gaindi. Errealitate hori banalizatua, normalizatua, gureganatua eta ezagutua izan daiteke.

Mugaldeko lurraldearen "mugaz-gaindikoak" ezagutzeko, paradoxikoki, iduri luke forman berean lantzen ahal dela edo mugaz-gaindiko errealitate horren banalizazioaren baitan.

Mendia erdigunean

Euskal herriaren baitan den mugaren parte gehiena mendigunean kokatua da. Horretarako, IEHGKak mendiari buruzko ekarpenak, gogoeta honi lotzen dizkio eta batez ere 2022an ekoitzi iritzia "Nola berritu Euskal mendiari buruzko anbizio kolektiboa?". Lan kolektibo horretatik ideia zenbait gogoratzen ditugu:

- Euskal mendia **bizi da, bizi-lekua ere da eta zentzuduna da** herritar guziendako
- **artzaingoari** lehentasuna eman behar zaio, mendia lan tresna bezala erabiltzen duenari, hori baita mendiaren bizitasun eta bazterren kalitatearen berme
- mendi testuinguru eta erabilpen desberdinei egokitzen den, **Euskal mendiaren garapen berezitua** pentsatzea beharrezkoa da, proiektu partekatu baten zerbitzuko.

Proiektu honek mendiko gaurko jendarteko erronkak landuko ditu. Hala nola, Euskal mendia gehienik mugaren alde batean eta bestean kokatzen da. Alta, bere kudeaketa bere osotasunean pentsatzea beharrezkoa da eta horretarako, mugaz-gaindiko kudeaketa baten beharra bada. Manera horretan, MUGALUREk, IEHGKak orain arte eraman mendiarekiko hausnarketa elikatuko du eta alderantziz.

Mugaz-gaindikoarekiko atxikimendu eta motibapenenganik, **mendiko lurraldea barnatasun kultural eta historiko batekin begiratuko da:** mugaldeko kultura, mendian ikusten da eta honek, bere historia kondatzen du, erran nahi baitu, besteak beste, muga politiko baten izaitearen berezitasuna.

Mendiguneko lurraldeekiko ikuspegi horrek, **Eskualdeko Parke Naturalaren (EPN)** gogoetak elikatzen ahalko ditu eta Euskal herriko mendiaren aspektu sozio-kulturala azpimarratuko du.



Proiektu baten sortzea : MUGALUR

Gogoeta horren barnatzeko ideiarekin eta mugaz-gaindiko jendarte zibilarekin gaiaz solastatzeko xedearekin, IEHGKak **MUGALUR** abian jartzen du.

Mugaz-gaindiko errealitatearen ikuspegia baita mendiarekiko ikuspegia kurutzatuz, **MUGALUREn** helburua da **mugaldeko eta mugaz-gaindikoaren errealitatea lurraldeen eta proiektu dinamiken baitara ekartzea**, garapen baliabide bezala kontsideratuz. Hurbileko mugaz-gaindiko lurraldeen eskalan oinarrituz, MUGALUREk erakutsi nahi du **material imaterial horrek ibarren arteko lankidetzaz berdinamizatzeko gaitasuna duela**.

Zein helburu?

Euskal herriko mugaz-gaindiko errealitateaz **jakintza eta ezagutzak metatu** ikuspegi zabal baten garatzeko: herritar diagnostiko baten egitea mapen bidez -geografikoak bainan ere mentalak- lekukotasun eta kondaketen bideo muntaketak...

Mugaz-gaindiko trukaketa espazio baten sortzea, ideien laborategi bat mugaz-gaindiko jendarte zibila mobilizatzen duena, batez ere gazteria: biharko nahi ditugun mugaz-gaindiko trukaketen lekuko lurraldeak pentsatu eta imaginatu.

Lurraldeko proiektuentzat, mugaz-gaindikoaren garapen gaitasuna ezagutu eta gauzatu.

Mugaz-gaindiko partaidetza

Akitania Berria Euskadi Nafarroa NAEN euroeskualdearen diru-laguntzarekin eta **Cederna-Garalur elkartearen** baita **UPV-EHU Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatearen** partaidetzarekin, IEHGK-k esperimentazio baten eremaita proposatzen du mugaz-gaindikoaren gaitasun eta baliabideak ezagutzea lurraldeko garapen proiektuak pentsatzeko.

CEDERNA-GARALUR

Cederna-Garalur-ek Nafarroako baserrialdeko lekuko garapenean esperientzia du eta MUGALUR proiektuari alde kokretu eta eragilea ekarriko du lekuko mugaz-gaindiko proiektuak pentsatzeko. Horrez gain bere aktoreen sareaz baliatzen ahalko da proiektua.

UPV-EHU

UPV-EHU-ko ikerleek proiektuaren alde zientifikoa segurtatuko dute, mugaz-gaindiko errealitate sozialaz beren analisia proposatuz baita beren ikerketak elikatuz jendarte zibilarekin bildutako materialarekin.

Beste **lekuko partaide** batzuei ere dei egingen zaie proiektuaren denboran: adibidez, Eusko Ikaskuntza, Aldudarrak Bideo, Labrit multimedia, Xareta elkarte, Pirinioko mahaia, Baztango udala...



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • NAVARRA

Egitarauan...

- **Tailer parte-hartzaileak**

9 mugaz-gaindiko tailer parte-hartzaile antolatuko dira 2023ko iraila eta 2024ko ekainaren artean.


Tailer bakotxera, aitzinetik definitu mugaz-gaindiko eremu bateko jendarte zibileko eragileak gonbidatuko dira. Naturalki badiren harremanei kasu egingen da: harreman historikoak, bizipenak, harreman humanoak, ekonomikoak baita familiakoak, eremu baten bereganatze sendimenduak sortu diren lekuak.

Mapen bidez lan egingen da parte hartzaileekin gaurko mugaz-gaindiko praktikak erakusteko eta gaurko Euskal-herriko mugaz-gaindiko errealitateen diagnostiko herrikoa egingen da.

Mugaz-gaindikoaren erronketaz solastatuko da baita mugaz-gaindikoaz lekuko lurraldeko desfioei erantzuteko baliabide bezala harturik, Trukaketa horiek **geroari buruzko eztabaidara** eramaten dute: zein mugaz-gaindiko mota nahi ote dugu?

Artista bat gonbidatuko da tailer bakoitzera **lurraldea kondatzen duen sorkuntza** baten proposatzeko, tailerreko solasetatik abiaturik.

Bideo erreportaien bidez, mugaz-gaindiko biziari atxikimenduak eta horren transmisioa aipatuko dira.



NUN?

2023KO URRI-AZAROA

2024-KO MAIATZ-EKAINA

2024-KO OTSAIL-MARTXOA

IRATI

XIBERUA /
ERRONKARI /
ZARAITZU

ERROIBAR,
ESTERIBAR,
GARAZI,
ALDUDE

ERROBI-
BAZTAN


XARETA -
BAZTAN

TXINGUDI
INGURUAK

BIDASOA
INGURUAK

LURRALDE ARTEAN:
SAKANA, GOIERRI,
DEBAGOIENA,
AMIKUZE, HAZPARNE

BAIONA-DONOSTIA
KOSTALDEA



- **Ikerketa mintegiak**

Bi ikerketa mintegi antolatuko dira UPV-EHUn 2024ko urtarrilean eta ekainean, **mugaren inguruko ikerketetan berezituak diren ikerleekin**. Horien bidez, erronka zenbait aipatuko dira eta Euskal Herriko mugaren inguruko errealitatea hobeki ulertzeko gakoak izango ditugu.

- **Bilduma momentua**

Urteko azken momentu baten bidez, bilduma egiteko parada izanen dugu, urtean zehar bildu datu guztiak aurkezteko gisan.

ETA ONDOTIK? UKANEN DITUGU...

Datu imaterial horietan oinarriturik, lurraldeko liburuxkak osatuko ditugu, proiektuaren momentu desberdinetan sortu osagaiak bilduko dituztenak.



MUGALUR



ONDOKO PARTAIDEAK BILTZEN DITUEN PROIEKTUA:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



-REN LAGUNTZAREKIN

KONTAKTUA:

e.casiriain@societecivile-paysbasque.com

05 59 25 38 90